

Altخالilia

Xuri, gorri, urdin,
nahasketa bardin
lūma bezain arin
lili bat ūdūri
agurrez deneri
ejerrez haütūa
da altخالilia
zelū urdinean
badoa airean
pausatūz artetan
lili bihotzetan
.....hurrūpatzen
bihotzean dūan
ihitz nigarren

Xerri kuttin

Norat zoaz, xerri kuttin,
Hegaztia bezain arin,
Urrats honez ezin heltūan ?
Entzūna dīt, oihanean
Ezkūrta dela lūrrean.
Zer besta harat heltzean !

Kasū, otoi, xerri kuttin,
Otsoa han dūzū bardin
Zure haidūrū hortz honean.

Lotsarik nitaz ez ūken,
Otsoa badūt ikusten
Zale nūzū ezkapiren.

Adio, gaixo xerri kuttin,
Egizū han apairū fin
Eta, otoi, etxerat jin.

Amañiren gatūa

Leihotik oihūka ari da amañi
Ohoin batek deiola hartū miñiñi.
Aūzo kozinerak, erri eta trūfa :
"Ez dūzū galdūrik miñiñi maitea."

Eta erri tra la la
Eta trūfa tra la la
Trūfa, erri, derri, derra tra la la.
"Diozū miñiñi ez dela galdūrik,
Ni lotsa, zūk dūzūn nonbait hor
gorderik."

Kozinerak berriz trūfa eta erri
"Jinen da miñiñi bihar edo etzi."

Eta erri tra la la
Eta trūfa tra la la
Trūfa, erri, derri, derra tra la la.

ahairea: c'est la mère Michelle qui
a perdu son chat...

Amarentako

Bihotzean badūtūt nik
Amarentako bildūrik
Kanpo ederretan beno
Hanitzez lili haboro.
Badūtū ene bihotzak
Amari eskentzekoak
Mündū zabalean beno
Txori eijerñi haboro.
Badūtūt ere gordeak
Amari eman beharrak
Egin datekean beno
Besarka-tinka haboro.

Arri arri mandoko

Arri, arri, mandoko
Bihar Iruñerako
Hantik zer ekarriko ?

Ekarriko ?

Zakūta bat iranja
Zareta bat bixkotxa
Biesetan mattua
Sakoletan honttoa.
Hoik oro, norentako ?

Norentako ?

Nor egon da perestū ?
Sekūlan ez kexatū ?
Amari obeditū ?
Harek dū ūkenen
Nik beiteitzot emanen
Mandoaren gainen
Hapataka handian
Iruñetik ekarriak
Dütūdan gaūza honak.

Andde gorri

Andde-gorri,
Andde-gorri
Flai,Flai,Flai,Flai,

Andde-gorri, zai gorri
Flai,Flai,Flai,Flai.

Dūkegūa bihar eki ?
Flai,Flai,Flai,Flai,

Ala eginen dū ebi ?
Flai,Flai,Flai,Flai.

Hegalez baniz airatzen,
Flai,Flai,Flai,Flai,

Eki xuri dū eginen
Flai,Flai,Flai,Flai.

Zaia gorri, andde-gorri,
Flai,Flai,Flai,Flai,

Eniz fidatūko zuri
Flai,Flai,Flai,Flai.

Urtats

Zoin den ederra
Urtats-egūna !
Goizean goizik
Haurra jeikirik
Ait'amen gana
Laster badoa
Desir hoberenak
Aho-mihitan
Pot maiteenak
Ezpain-pūntetan
Urte hon, aita !
Urte hon, ama !

Besta hon ama

Bihotzean kantoreak,
Ezpainetan potñiak,
Begietan izarrak
Eskūetan liliak
Amodioz gaintika
Xede honez beteka
Zure haurra heben da
Bihotz oroz deizūla
Besta hon zuri, ama,
Ama maite maitena.

Bubañi

Bubañi, ene nimiñoa,
Bubañi, egizū lo.

Ama hor dūzū, zain hoberena
Junpatzen deizū goxoki kūiña.

Bubañi....

Barbau badela ez egon lotsaz
Amak ohiltū dizū so beltzaz.

Bubañi....

Amets eijerra dūzū gogoan
Erri eztia ezpain-xokoan.

Bubañi...

ahairea: fais dodo, Colin mon p'tit
frère...

Ebia

Flik ! flak ! flok !
Ebia

Txortaka
Hasten da.
Flik ! flak ! flok !
Punpaka
Jauzika
Horra da.
Flik ! flak ! flok !
Zabaltū behar da
Pasola.

Egizü lo

Nimiñoa,
Soizü gaüa
Beltz begia
Eroria,
Argizagi
Hor ageri.
Behar düzü
Laster lotü.
Aspaldian
Artegian
Axuria
Lo dagozü.
Jinen zaizü
Ametsiña
Gain beherea
Lo bazira.
Txo, bazterrak !
Ixil, denak !
Nimiñoa
Lotü beita.

Eihera zaina

*Ohe ! gizon ! iratzar, otoi, fite !
Ohe ! gizon ! eihera zalegi badoak !*

Hegalak, hegalak, üngürüka
Barranba, barranba, doatzak
Hegalak, hegalak, üngürüka
Galopaz, galopaz doatzak.

*Ohe ! gizon ! bihia ehorik dük !
Ohe ! gizon ! irina zaküan diagü !*

Hegalak, hegalak, üngürüka
Eztiki eztiki doatzak

ahairea: meunier tu dors...

Gatü eta sagü

Sagü hüme triste
Dago granerean,
Gatü beltza tente
Han beita barandan.
Sagüak südürra
Xilorik baleza
Erakuts ber-bera !
Gatüak ordüan
Lezake atzaman,
Atzaman eta jan.
Gatü beltz faltsüak
Balitza, debrüak,
Hortik hüts leküak !
Sagüni ordüan
Botzik granerean
Ari leite dantzan !

Hur gainean

Ama, hur-gainean
Ontzi ttipia doanean,
Non dütü gorderik
Bere zankoak zalerik ?

Haurra, hur-gainean
Ontzi ttipia doanean,
Zankorik ez beitu
Behar dü arin lerratü.

Ama, hur-gainean
Ontzi eijer baten barnean
Joan baginte biak,
Utzirik oro bestea ?

*ahairea: maman, les p'tits
bateaux...*

Kürloak

Kürloa urro, urro
Zelüan gora, gora
Badoa urro, urro.
Negüa hor da, hor da
Sütondo bero, bero
Etxean bada, bada.
Kürloa urro, urro
Jinen da gero, gero
Ekarriz goxo, goxo
Ekia bero, bero.

Laminen zübüa

*Laminen zübüan
Dantzan, dantzan ari gustüan,
Lamiñen zübüan
Alegera ari dantzan.*

Neskatxonek agur honat
Motikoeak agur harat
Laminen

Neskatxonek klaska honat
Motikoeak klaska harat

Laminen

Tabaletan, rapataplan
Txürületan, ttiruliran

Laminen

ahairea: sur le pont d'Avignon

Larrazkena

Zühaintzetik ostoa
Airez-aire badoa.
Üdüri dü txori bat
Airatzen zelüalat.
Buha ! buha ! aizeak !
Dantza ! dantza ! ostoa !
Ai ! banütü nik ere,
Joaiteko airez-aire,
Bi hegal eijer arin !
Hegalta neinte bardin.

Oilarra

Kükürükü !

Zer dük oilarra
hola oihüka gorri gorria
hor kükürüka !

Jeiki, jeiki
zelüan gora beita ekia
jente auherra
ütz hor ohea

kükürükü !

Oilo koroka

Klok ! klok ! klok ! oioa
Badoa paseün
Kanpoen ikertzen
Txitxen erdian.
Ttiutt ! ttiutt ! ttiutt !
Pipiak, goseak, amari kantari.

Klok ! klok ! klok !
Lürrean haztakan
Oilloa ari da.
Ttiutt ! ttiutt ! ttiutt !
Janari, xixari, igeri, ageri.

Klok ! Ttiutt ! Klok !
Pipiak, aseak, bildüak
Amaren hegalen
Zain-pean bakean.

Klok ! klok ! klok !

Txoria kantari

Ttiru liru li
Txoria kantari,
Ttiru liru la
Airez-aire doa.
Ttiru liru le
Habian araultze,
Ttiru liru le
Araultzen hüme.
Ttiru liru li
Txoria kantari,
Ttiru liru la
Bedatsea hor da.

Ontzi ttipian

Ontzi ttipia itsasoan (bis)
Sekülan e-e-ebili etzen (bis)
ohe ! ohe !

Ohe ! Ohe ! mariñel !
Mariñel abil itsasoan (bis)

Ontzi ttipia hürrün zoa (bis)
Itsas handi-di-di zabalean. (bis)

Zonbait aste igan ondoan, (bis)
Urrentü ze-ze-zen jaketoa. (bis)

Nor jan behar zen jakiteko (bis)
Txotxetan ti-ti-tiratü züen. (bis)

Txotxek haurrena eman züen (bis)
Errerik ja-ja-jan izateko. (bis)

ahairea : il était un petit navire.

Txori eijer eijerra

Goizan goiz behin batean,
Izan nintzan baratzean
Lili eijerren erdian.
Zoin diren xarmagarriak

Lili eijer eijerrak !
Bi lilien bil artean,
Txoritto bat jin zeitadan
Zerbait nahiz eni erran.
Zerbait erranen txoriak,
Txori eijer eijerrak.
"Zabal, otoi, beharriak,
Entzüteko zühür-hitzak,
Zeitaden erran txoriak,
Otoi, ez fida gizonen
Gizon eijer eijerrer."

ahairea: gentil coquelicot...